



**BASAURI**  
Udala • Ayuntamiento

# BASAURI (BIZKAIA) UDALERRIKO KARTOGRAFIA DIGITALEKO (1:500 ESKALA) DATUETARA SARTZEKO ETA DATU HORIEK ERABILTZEKO LIZENTZIA



Bertsioa: 1.0

2017ko martxo



Informazio kartografikoko datuetara sartzeko, beharrezkoa izango da eskubideak lagatzeko lizentzia izatea. Lizentzia hori automatikoki emango da, eta joko da hura baliatzen dutenek jarraian adierazitako sarbide-baldintzak ezagutu eta onartzen dituztela. Hona hemen:

**Emandako informazioa publikoki erabili, eta informazio horren zabalkundea egiteko baldintzak.**

1. Baimena ematen da informazio kartografikoa masiboki deskargatzeko, baldin eta deskarga hori, erabiltzaile titularrak erabiltzeko bada. Baimena ematen da, era berean, informazio kartografikoan oinarrituta, balio erantsia duten produktu berriak egiteko eta banatzeko, eraldaketa interesdunak berak egiten baldin badu.

Baimendu egiten da apirilaren 12ko 1/1996 Errege Dekretu Legegileak onetsitako Jabetza Intelektualaren Legearen 21. artikuluan jasotako baldintzetan egindako aurretiazko eraldatze prozesua jasan duen informazio kartografikoaren erabilera publikoa (erabilera komertziala barne). Ondorioz, ez da baimenduko hornitutako jatorrizko informazioa zabaltzea, banatzea edota merkaturatzea: informazio hori ezin da zabaltzea ez Internetetik, ez eta beste edozein modutan ere, lehenago eraldatzen ez bada. Informazio kartografikoa eraldatu egin dela joko da, baldin eta itzulpen, egokitze edo informazio horren forman egindako beste edozein aldaketaren ondorioz beste obra bat sortu bada. Eraldatutako lanaren egilearenak izango dira lan berriaren eskubideak.

2. Informazioa deskargatzen duten erabiltzaileek onartu egiten dute eguneratu gabe dauden, edo zuzenak ez diren datuak egon daitezkeela. Aurreko aldietan hornitutako informazioaren bertsio eguneratuak ematen saiatuko da Basauriko Udala. Ordea, horrek ez du esan nahi aurretiaz deskargatutako informazioaren bana-banako edo aldizkako eguneratzea egiteko obligazioa izango duenik Udalak.

3. Basauriko Udala ez da inolaz ere izango eskatzaileak deskargatutako informazio kartografikoa eraldatzeetik sortutako produktu edo zerbitzuen erantzulea.

Informazio kartografikoaren deskarga masiboaren onuradunak izango dira hirugarrenek jarri, eta Basauriko Udalak emandako informazioan oinarritutako balio erantsidun produktuak sortzea ekar dezaketen erreklamazioen erantzuleak.

Informazio kartografikoa eraldatu bai, baina ezingo da haren edukia aldatu, ez eta duen berezko zentzua kendu ere. Sor daitezkeen produktu edo zerbitzu berriek ez dituzte ordezkatuko Basauriko Udalak eskainitakoak.

**Zerbitzua etetea**

Zerbitzua eten egingo da programatutako geldialdia egiten denean udal zerbitzarietan. Behar besteko aurrerapenarekin iragarriko dira geldialdi horiek.

Era berean, edozein erabiltzaileari emandako zerbitzua eten ahalko da baldin eta, deskarga-prozesuan zehar, antzematen bada deskarga horren intentsitateak, maiztasunak edota bestelako inguruabarren batek kalte egiten diola gainerako erabiltzaileen sarbideari, edota zerbitzuaren kalitate edo segurtasunari. Kasu horietan, sistemak automatikoki etengo du deskarga prozesua, eta interesdunari jakinaraziko dio etetea zergatik eman den. Era berean, zerbitzuko arduradunekin harremanetan jartzeko datuak emango zaizkio erabiltzaileari, eskatutako informazioa lortzeko dituen alternatibak berri eman diezaioten.

Basauriko Udala ez da inolaz ere izango programatutako geldialdiek edo geldialdi teknikoek erabiltzaileen jardueran izan ditzaketen ondorioen erantzulea.

**Lizentzia errebokatzea**

Lehenago emandako lizentzia errebokatuko da baldin eta, hura eman ostean, antzematen bada ez dela egokiro erabili. Errebokatzearekin batera, egon litezkeen erantzukizunak argitu beharko dira, 417/2006 EDren 78. artikuluan ezarritako baldintzetan.

